

# PRENTSA-OHARRA

**Bilboko Portuan energia berriztagarriak eta hidrokarburoak biltegitzeko portu-terminala handitzeko proiektua aurkeztu du DBA Bilbao Port-ek, 40 milioi eurotik gorako inbertsioarekin.**

- DBA Bilbao Port-ek planta berrirako proposatutako instalazio modernoei eta ezaugarri teknikoiei esker, % 500 handituko litzateke Bilboko Portuan energia berriztagarriak eta hidrokarburoak biltegitzeko edukiera. Gero, energia berriztagarri eta hidrokarburo horiek errepidez eta itsasoz bidaliko lirateke.
- Proiektuaren bidez, Bizkaiko Foru Ogasunak urtean 100 milioi eurotik gora bilduko lituzke zergen bidez.
- Portu-terminala handitzeko proiektua Bilboko Portuak deitutako lehiaketara aurkeztu da, Punta Sollanan daukan 46.000 metro karratuko partzelan haren jarduna zabaltzeko eta, hala, itsasoz garraiatzen diren salgaien sarrerak eta irteerak areagotzeko.

## **Bilbo, 2020ko uztailaren 9a.**

DBA Bilbao Port enpresak energia berriztagarriak (bioetanola, biodiesel, hidrobiodiesel...) eta hidrokarburoak biltegitzeko portu-terminal berria eraikitzeko proiektua aurkeztu du. Punta Sollanan (Zierbena) dagoen 46.000 metro karratuko partzela batean eraikiko litzateke portu-terminal hori, gaur egun dituen instalazioen ondoan. Proiektuaren bidez, Bilboko Portuan energia berriztagarriak eta hidrokarburoak biltegitzeko duen edukiera % 500 handituko litzateke, 315.000 metro kubikokoa izatera iristeraino, eta beraz, errepide zein itsaso bidezko trafikoa areagotuko litzateke. Proiektuak 40 milioi eurotik gorako inbertsioa eskatzen du eta zergetan urtean 100 milioi eurotik gora biltzea ahalbidetuko lioke Bizkaiko Foru Ogasunari.

Hala, proiektu berria "estrategikoa da Bizkairako zein Euskadirako" eta, DBA Bilbao Port-en presidente den Enrique Guzmanen arabera, "Europako Arku Atlantikoan estatu mailako zein nazioarteko operadoreentzako edukiera handiko biltegitratze-zentro estrategiko bat" sortzea ahalbidetuko luke, beste abantaila batzuen artean. Gainera, "instalazio moderno eta aurreratuen diseinuari eta haien ezaugarri tekniko eta teknologikoei esker, gure lurraldeak jauzi kuantitatiboa eman ahal izango luke energia berriztagarriak biltegitratzearen eta gero haiek erabiltzearen arloan", azpimarratu du Guzmanek. Horri guztiari esker, errazagoa izango litzateke "itsasontzi handiekin" jardutea eta "itsasoz beste terminal batzuk hornitzea". Era berean, "itsasontzi handien sarrera-fluxua" areagotuko luke, "haien bitartez txikiagoak diren beste itsasontzi batzuk hornitzeko, hots, logistika-lanetarako". Guzman oso pozik dago DBA Bilbao Port-ek Bizkaian dituen instalazioak handitzearekin eta, haren ustez, inbertsio berri honekin "konpainia gure lurraldera are gehiago errotuko da guztiok gure onena eman behar dugun momentu honetan, indarrez aurrera egiteko eta euskal ekonomia ahal bezain laster berraktibatzeko".



Bestalde, "Bilboko Portu osoarekin batera egindako ekarpenak eta hidrokarburoen logistika-jarduerak petrolioaren sektoreko operadore handiekiko merkataritza-harremanak susta ditzakete", DBA Bilbao Port-en zuzendari den Ignacio Martínez de Lejarzak gailendu duenez. Momentu honetan Bilboko Portuaren kanpoaldean dagoen portu-emakida baten titularra da enpresa, portuan erregaien eta hidrokarburoen logistika-jarduerak egokitu eta kudeatzeko. Emakida hori Punta Sollanan dago eta 22.000 metro karratuko azalera du. Proposatutako proiektuaren bidez eta jada DBA Bilbao Port-ek Bilboko Portuan egiten duen lanaren bidez, instalazio horiek urtean gutxienez 900.000 tonatik gorako trafikoa bermatuko lukete.

Proposamenari esker, portuko terminalekin konektatuta egongo litzateke, hodian sare baten bidez, eta 300 metrorainoko luzera eta 100.000 TPM (pisu hilaren tonajea) duten itsasontziak porturatzea ahalbidetuko luke. Bilboko Portuak Punta Sollanan duen partzela bat erabili ahal izateko eta hala itsasoz garraiatzen diren salgaien sarrerak eta irteerak areagotzeko deitu duen lehiaketarako aukera gisa aurkeztu da proposamena. Bilboko Portuko Agintaritzak likido handien terminal bat edo terminal logistiko-industrial bat eraikitzeke erabili nahi du partzela hori, Bilboko Portuak gaur egun erregaiak biltegitratzeko duen edukiera handitzeko eta merkataritza-jarduna areagotzeko.

Helburu horiek lortzeko, DBA Bilbao Port-ek IDOM Consulting, Engineering, Architecture ingeniaritza-enpresari agindu dio proiektua. Enpresa horrek esperientzia zabala du oil&gas sektorerako proiektuak egiten, eta partzela hori erregaiak biltegitratzeko portu-terminal berria eraikitzeke erabiltzea proposatu du. DBA Bilbao Port-ek badu esperientzia arlo horretan eta, horri esker, Bilboko Portuan zegoen bioerregaien planta baten jarduna eta funtzionaltasuna birmoldatu dira, 54.000 metro kubikoko portu-terminala bihurtzeko eta, hala, biltegitratze- zein logistika-lanetara bideratzeko.

### DBA BILBAO PORT

DBA Bilbao Port-ek Bilbon dauka egoitza soziala eta Bilboko Portuaren kanpoaldean dagoen portu-emakida baten titularra da. Bilboko Portuko Agintaritzaren Administrazio Kontseiluak eman zion emakida hori, portuan erregaien eta hidrokarburoen logistika-jarduerak egokitu eta kudeatzeko. Emakida hori Punta Sollanan (Zierbena) dago eta 22.000 metro karratuko azalera du.

Portu-terminalak hodi batzuk dauzka, Punta Ceballosen itsasontzien zamalanetarako dagoen kai batera eta gainerako portu-terminaletara zuzenean konektatuta daudenak. Horrela egiten du lan, Bizkaiko Foru Aldundiak hidrokarburoen zerga-gordailu gisa jarduteko administrazio-baimena eta kalifikazioa eman baitzizkion. Horrela, erabilgarritasuna eta konfiantza eskaintzen dizkie petrolio-operadoreei. Hain zuzen ere, petrolio-operadoreen lana izugarri hazi da: 2019an 160 mila tona baino gehiago lortu zituzten eta 2020 honetarako 200 mila tona gainditzea aurreikusi dute.

Gainera, Enpresen Gizarte-erantzukizunaren alde egindako apustuaren baitan, 2019ko abenduan **Euskadi Fundazioa txirringarritza taldearen** babesle nagusietako bat bilakatu zen DBA Bilbao Port. "Fundazioak taldean lan egiteko duen filosofia, balioak, hurbiltasuna eta etorkizunera begirako anbizioa eta ikuspegia partekatzen ditugu, horiek baitira bertako jendearen ezaugarriak", bermatu du Enrique Guzmán presidentek.

Informazio gehiago:

Kepa Jon Martínez Barañano

AIDEAC COMUNICACIÓN

kepamartinez@aideac.com

T. 606 049 529